

2021eko EKAINA

201



txi kitto!



**UDARAKO
PREST**



Euskara Elkarte

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Ekhi Belar.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

- Ama, zergatik dut
izena Klaudio?

- Seme, nire izena
Klaudia delako.

- Zorionez zure
izena ez da Ana!
Jajajajaja



Bi arrain daude
hizketan eta batak
esaten dio besteari:

- Badakizu zer?

- Zer?

- Bi segundoko
memoria daukagu.

- Zer?



- Ama, zer egiten ari zara
ordenagailuaren aurrean
begiak itxita dituzula?

- Ezer ez da, seme,
Windows-ek fitxak ixteko
esan didala da.



Bi mexikar daude eta batak
esaten dio besteari:

- Nola duzu izena?

- Pepe Gaileta.

Besteak pistola atera... eta...
BUMMMM.

- Ba orain Pepe Roskila zara!!



Gipuzkoako Foru Aldundia

Egun batean Jaimito dutxan zegoela, plof bat entzun zuen. Jaimitok bere amari galdetu zion:

- Zer izan da soinu hori?
- Ezer ez garbigailua leihotik behera bota dut, oso zaharra zegoen eta.

Hortik minutu gutxitara Jaimitoren amak beste plof bat entzun zuen eta Jaimitori galdetu zion:

- Zer izan da soinu hori??
- Ezer ez ama, amona leihotik behera bota dudala oso zaharra zegoen eta.




Gizon batek esaten du:

- Nire emaztea hain lodia da non lorezko blusa jartzen duenean bizilagunek udaberria iristen ari dela uste dutela.




Euskaldun bat eta ingeles bat banku batera doaz eta ingelesak esaten du:

- Help help!!!
- Ez daukat gel, bakarrik txanpu!!





7 DESBERDINTASUNAK



HIZKI-ZOPA

AURKITU
INSTRUMENTUAK

Maialen Peres

O	P	T	Y	B	A	T	E	R	I	A	X	W	P
G	Z	I	A	L	U	R	X	T	U	S	I	V	I
I	F	D	A	I	F	L	I	A	K	Z	L	D	A
T	X	O	J	M	T	D	H	N	E	I	O	F	N
A	A	I	B	I	O	M	B	B	L	H	F	S	O
R	P	N	J	M	O	A	S	O	E	G	O	A	L
R	N	U	B	P	X	I	L	R	L	E	N	D	K
A	Y	A	X	O	E	R	Z	R	E	Z	O	S	C
K	R	E	M	U	S	I	K	A	A	S	A	D	C


- Gitarra
- Bateria
- Ukelelea

- Tromba
- Tamborra
- Xilofona

- Pianoa



LABIRINTOA



ORDENATU HIZKIAK

KOLOREAK

MAEOR	AORSR
ARANAjL	AROIARM
OAIRRG	PUPUARR
DIAUNR	SEUTTXAE
ORAIH	ROEUAJ
EEABRD	RAON
LBAA	ATINMR
OBILRAFOAG	AMLEEKR
ADIUCLA	AENLM
XTPIPA-	AMALINE
RZAKAA	RASAAILLMK
EERPz	IZD
ERANDZEFN	INL
AEZNS	

10 desberdintasunak



Bidali erantzunak **EKAINAK 30** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....


Adina..... Tel.



Oinatz sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, **OINATZ**

Aupa OINATZ, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK!



Azenario mutanteak

Hartu antzeko neurria duten 3 azenario eta egin esperimendu dibertigarri hau; ura eta gatz pixka bat baino ez duzue behar. Emaitzek harritu egingo zaituzte! Esperimendu erraza da, eta erabat segurua. Hiru azenarioak substantzia ezberdinetan sartu behar dituzue, 2 egunez, eta zer gertatzen den ikusi.

MATERIALA:

- Hiru azenario (neurri berekoak, gutxi gorabehera)
- Hiru edalontzi edo ontzi
- Ura
- Gatza

Nola egin:

Lehendabiziko edalontzia txorroteko urez bete. Bigarren edalontzian gatz arrunta bota, edalontzi erdira arte gutxi gorabehera, eta ura botako dugu goraino bete arte, gatzun antzeko bat lortzeko. Hirugarren edalontzia hutsik utziko dugu. Edalontziak prest daudenean, azenario bana sartuko dugu edalontzietan eta 48 orduz utziko ditugu bertan.



Zer gertatuko da?

Ikusiko dugu urez beteriko edalontzian dagoen azenarioa handitu egin dela; gatz eta urez beteriko edalontzian dagoen azenarioa deshidratatu egin dela eta, hortaz, txikiagotu egin dela. Azken azenarioak, hutsik dagoen ontzian dagoenak, bere horretan jarraituko du.



Arto eta atun entsaladilla

Arto- eta atun-lata bana, piper berde bat, tipula zati bat eta maionesa; besterik ez duzue behar entsaladilla fresko hau prestatzeko. Moztu oso zati txikietan piperra eta tipula eta nahastu ontzi batean artoarekin eta atunarekin. Maionesa gehitu eta hortxe duzue entsaladilla goxo-goxoa! Txigortutako ogiaren gainean jarri dezakezue, adibidez.



sukal-saltsan



Teknologiarekin gozatzuz trebatu




Urkizu ikastetxeko 5. mailako ikasleek proiektu interesgarri eta polit batean hartu dute parte. Makina sinpleak eta konposatuak ezagutzeko aukera izan dute, baina ez hori bakarrik; horiek egin edo eraikitzeako aukera ere izan dute-eta. Gainera, Debabarrena mailako STEAM izeneko erronkan ere hartu dute parte euren proiektuarekin. Eta orain dela urte batzuetako tresnekin erakusketa ere egin dute, eskolako ikaskideei erakusteko. Proiektuan jardun duten bost ikaslek kontatu digute euren esperientzia.



**OMAR
AGHBALOU,
11 URTE**


Proiektuarekin hasi ginenean andereñok esan zidan makinak egingo genituela. Nik pentsatu nuen kotxeak edo motorrak egingo genituela, baina oker nengoen. Eta konturatu nintzen askoz ere makina gehiago daudela; batzuk sinpleak dira eta beste batzuk konposatuak. Guk biak ikasi ditugu, eta haiekin maketak egin ditugu. Enpresa batekoak ere etorri dira guk egindakoa grabatzera. Gauza asko egin ditugu: tornua, palanka, plano inklinatua, txirrika, katapulta... Askok gustatu zait. Gehien harritu nauena katapulta izan da, indar asko dauka-eta.

**LUIS GUZMAN,
10 URTE**



Makina berri batzuk ezagutzea izan da gehien harritu nauena, adibidez plano inklinatua, tornua, palanka... Ez nituen ezagutzen. Maketak egiterakoan asko ikasi dut, lehen ez nekien gauza asko. Harrituta gelditu naiz jakitean plano inklinatua makina bat dela. Pisuak modu errazagoan mugitzen laguntzen duen makina da. Oso ondo pasatu dut proiektu honetan parte hartzen eta errepikatuko nuke hurrengo ikasturtean, beste makina batzuekin.

**NAIA FERNANDEZ,
10 URTE**



Makina sinpleak eta konposatuak zer diren ikasi dugu. Makina horiek lan egiterakoan lana errazten eta laguntzen diguten tresnak dira, indar gutxiago egin behar delako. Sinpleak osagai bakarrez osatuak daude eta modu bakarrean funtzionatzen dute, adibidez plano inklinatua, gurpila, tornua edo txirrika. Konposatuak sinple bat baino gehiago elkartzen direnean sortzen dira, adibidez bizikleta. Oso ondo pasatu dut proiektuan, oso esperientzia polita izan da.

**ANDER GONZALEZ,
10 URTE**



Oso maketa politak egin ditugu eta oso koloretsuak. Denborarekin egin ditugu eta pazientzia askorekin. Maketak gaian ikasitako makina sinpleen erreplikak dira: plano inklinatua, gurpila, tornua, palanka, txirrika sinplea, txirrika konposatua... Horiek guztiak egiteko material ezberdinak erabili ditugu: kartoia, kola, zotzak, plastilina, zura... Gehien gustatu zaidana tornua izan da, gauzak errazago altxatzeko balio du. Oso ondo pasatu dut eta asko gustatu zait proiektuan parte hartzea.

**OIHANE DE LA
VIUDA,
10 URTE**



Makina zaharrekin erakusketa egin dugu eta oso makina bitxiak jarri ditugu ikusgai: bizarra mozteko makina, irratia, telefonoa, radiokaseta, idazteko makina eta argazki-kamara. Gehien harritu nauena idazteko makina izan da. Zerbait txarto idazten bazenuen berriro idatzi behar zenuen dena. Pazientzia asko behar zen makina hura erabiltzeko. Guk ez dugu ezagutu, ez hori eta ez beste asko. Gu teknologia berrien sasoiari jaio gara: ordenagailua, tableta... Berriro hartuko nuke parte horrelako proiektu batean, asko gustatu zait.

URKIZU

Ikasturtea amaitzera dihoanez, Urkizu eskolako talde guztiak irteeratxo bat egiten ari dira: Arratera, Zientzia Museora, Akuriumera, Basondora, Sosolara eta Sumendixa baserrietara. Hamaika bazter bisitatu ditugu. 6. mailakoek INSPIRA STEAM formakuntza-tailerrak landu dituzte, gure eskolako neskek zientzien mundura hurbiltzeko. Bestetik, 5. eta 6. mailakoek Ciberbullying-ari buruzko formakuntza jaso dute Ertzaintzaren eskutik. 4. mailakoak Eskolarteko Antzerki jardunaldietan Hansel eta Gretel antzezlanari ikusi zuten Coliseoan. Ikasturte berezi honetan Urkizuko ikasleak zoriondu nahi ditugu Covid-19aren aurkako neurriak betetzen zintzoak izan direlako: maskarillak, jolastokiaren banaketa...



URKI

Arrateko Andra Mari ikastetxeko 3. mailakoak Eibarko eraikinak ezagutzera joan ziren, lantzen ari ziren proiektua biribiltzeko. 5. mailakoek "Baserrixa hurretik abelazkuntza" proiektuan parte hartu zuten Sumendixa baserrian eta 6. mailakoek, "Baserrixa hurretik barazkigintza" proiektuan Mendigoitxi baserrian. 3. eta 4. mailakoek, Castillo Suarez Garcia idazlearekin solasalditxo bat izan zuten eskolan bertan, eta 5. eta 6. mailakoek bertso-emanaldia ere eskolako aretoan grabatu zuten. Eskolako blogera igo zutenean geletan ikusi genuen.



ITURBURU

Iturburuko 1go mailakoak Oiasso Museoa bisitatu dute, eta erromatarren inguruan gauza pila bat ikasi dituzte. 2. mailakoak Eureka museoan egon ziren. Planetariuma ezagutu zuten eta ekintza desberdinekin gozatu zuten. 3. mailakoak Basondo izan dira eta mehatxatutako basafaunaren babeslekua dena ezagutu dute bertatik bertara. 4. mailakoak Añanako Gatza bisitatu dute, eta antzinar gatzak nola egiten zen ikasi dute. 5. mailakoek Deba eta Mutriku bisitatu dituzte eta egun pasa bikainaz disfrutatu dute. Azkenik, 6. mailakoek, Mendigoitxi baserria bisitatu dute. Bertako abereak eta ortuak ikusi eta lurraren kalitatea aztertu dute. Horrez gain, "Jolastokien eraldaketan murgilduta" proiektuan, ikasle guztiak, gelaka eta plastikako saioretan, jolastokiko maketa desberdinak egin dituzte. Iturburuko aretoan eta Kulturaleko Topalekuan ikusgai egon dira maketak.



LA SALLE

Kurtso berezi hau bukatzeko zorian dago, uda bertan dugu eta La Salleko ikasleak ere oporrak hartzeko desiatzen gaude!! Azken hiruhilabetea berehala pasatu da! La Salle asterekin hasi ginen, gure olimpiada ospetsuekin, Mattin kukuaren bisita, jolasak, erreleboak... Zelako ondo pasatu genuen! Oso berdinduta egon arren azken momentuan bakoitiek irabazi zuten erreleboetan.

Aurten ez ditugu irteerarik izan, baina zenbait ekintza kurtso bukaeran egin dira: 5.mailakoak Sumendixa baserria bisitatzera joan ziren, 6.mailakoak Debara joan ziren surf-a egitera, Eibarko alkatea 1.go mailakoekin egotera etorri da...

Oporretan deskonektatu, disfrutatu eta irailerako pilak kargatu!! Oso ondo pasa!!.



SAN ANDRES

Joan den maiatzaren 21ean MARCAN HUELLA elkarteko bi kide etorri ziren San Andres ikastetxera. Elkarte hau Ermuan dago eta kale-gorrian utzitako txakurrei etxeak aurkitzen dizkiete. Elkartekoak kalean bakarrik utzitako Wanda eta Urko txakurrekin etorri ziren eta eskolako 5 urteko neska-mutilei txakurrarengana nola hurbildu, zaindu eta hezitu azaldu zieten.



ALDATZE

Aldatzeko L.H. 6. mailako ikasleek, antzerki saioetan, bi antzezlan prestatu dituzte urtean zehar: bata euskaraz eta bestea ingelesez.

Ekainaren 2an, bi obrak antzezteko aukera izan zuten. Primeran pasatu zuten eta baita lan bikaina burutu ere. ZORIONAK!!



AMAÑA

Amaña ikastetxean ekimen berezi eta berri bat hasi dugu eskolara animaturik sartzeko.

Orain arte, txirrina beharrean, musika ezberdinekin hasten genuen eguna. Orain berriz, beste kutsu bat emanez, abesti eta koreografia ezberdinekin gorputza mugituz, alai hasten dugu eguna!!!



Debabarreanean murgiltzeko hainbat plan

Bizikleta-ibilbidea:

Soraluzeko trenbide zaharra

Soraluzetik historia luzea duen bide bat abiatzen da. Antzinako trenbidearen (Ferrocarriles Vascongados) tokitik doa, Soraluzetik Bergararaino. Bide erraza da, familian egiteko aproposa. Deba ibaiaren ertzetik doa, ia laua da eta asfaltatuta dago; beraz, maila guztietako ibiltari edo bizikletarientzat da aproposa. 6.5 kilometroko ibilbidea da; bi ordu inguru oinez, eta ordubete inguru bizikletaz.



Ekaingo kobak:

Euskal Historiaurreko gune berezia

Deban dagoen leizea, Goi Paleolitokoa. Labar-pintura garrantzitsuak ditu, munduko bost haitzulo garrantzitsuenen artean dago, eta UNESCOren Gizadiaren Ondare da 2008. urtetik. Haren erreplika bisitatu daiteke: Ekainberri. Zestoatik kilometro batera dago, eta erraza da bertara iristea. Haitzuloan, gutxi gorabehera, 70 animali-irudi daude; 64 margotuak eta 6 grabatuak. Zaldia da gehien ageri den irudia.



Dinosauro eta amoniteen garaiko fosilak

Mutrikun

Nautilus museoan Mutrikuko kostaldean jasotako laginen bilduma dago ikusgai. Bailararen historiako sekretu handienak ezagutzeko aukera da Nautilus, galtza-barrenak bustitzeko beharrik gabe. Museoko fosilak Jesus M. Narvaez-ek jaso ditu 30 urte luzetan zehar. Laginak Aro Sekundarioak dira, zehazki, eta beste era batera esanda, dinosauro eta amoniteen garaikoak. Amonite horietako batzuk forma eta marrazki berezidunak dira eta tamaina ezohikoa duenik ere bada tartean.



Oporrak hartzeko ezer ez zaizue falta. Aldizkari hau irakurtzen ari zaretenean agian oporretan egongo zarete. Eguna, asteak eta hilabeteak dituzue aurretik ondo merezitako oporrez disfrutatzeko. Erreportaje honetan familiarekin eta lagunekin egiteko moduko 5 plan proposatzen dizkizuegu; guztiak ditugu gertu, gainera, Debarrenean. ONDO-ONDO PASATU!



Dolmenen ibilbidea: murgildu Historiaurrean

Karakate eta Iturriberri lotzen dituen 11 kilometroko ibilbide zoragarria. Ibilde erraza eta malda gutxi-koa, familian egiteko aproposa. Elgoibar, Soraluze eta Bergarako udalerrietako lurretan zehar, 19 dolmenen ondotik igaroko gara, mendia eta itsasoa parez pare: Neolitoko eta Brontze Aroko tumuluak, trikuharriak eta zutarri bat. Ibilbide osoan zehar edertasun eta balio handiko paisaiak zeharkatzen dira. Bi ordu eta laurdenetan erraz egiteko moduko ibilbide honek Historiaurrean murgilduko gaitu!



Flysch-a: euskal kostaldeko altxorra

Debarreneneko kostaldean badago zer ikusi. Deba eta Mutriko Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkaren parte dira, Zumaiarekin batera. Kostalde hori itsaslabar ikusgarriez osatuta dago, eta marearteko zabalgunean Flysch izenaz ezagutzen den formazio geologikoa ikus daiteke. Harrizko geruza sekuentzia da, milioika urtetan zehar osatutakoa. Horiek ikusteko leku apropos asko ditugu. Adibidez, Deban Sakoneta eta Mendata itsaslabarretan. Itxaspe kanpinetik "Sakoneta"-ra jartzen duen bidea hartu, edo pixka bat aurrerago "Mendata" jartzen duena.

KONTUZ! Gune horretan sartu baino lehen kontuan izan behar da itsasoa zein egoeratan dagoen. Komeni da itsasbehera dagoenean joatea, gutxienez 3 orduz zabalgunekak gordetzen dituen sekretuez gozatu ahal izateko. Haitzen artean eroso ibiltzeko oinetako egokiak erabiltzea gomendatzen da.



Informazio gehiago: debarrenaturismo.com/eu

“Azeriak, oiloak eta sugeak” (AMAÑA ikastetxea)

NOLA JOLASTU?

- Hiru talde egingo dira: azeriak, oiloak eta sugeak.
- Jolas eremu bat zehaztuko da (adibidez, eskubaloiko zelaia).
- Eremu horretan talde bakoitzak etxea non duen erabakiko du.
- Taldeak ezberdintzeko koloreetako zapiak erabiliko dituzte.
- Jolas eremua errespetatuz, talde bakoitzak beste taldeetako jokalaria harrapatu behar dituzte: azeriek oiloak harrapatu behar dituzte eta euren etxera eramán, oiloak atxilotuz; era berean, oiloek sugeak harrapatu behar dituzte eta sugeek azeriak.
- Animalia bakoitza bere etxean sartuz gero, besteek ezin dute harrapatu.
- Jolasa talde bakarra geratzen denean amaitzen da.



BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/amana-jolasa.html>



zer irakurri

Juan San Martin Liburutegia



Eskeleto barregarriak 6 urtetik aurrera

Liburu dibertigarri honek hiru izakiren eskeletoak ditu protagonista: gizon batena, ume batena eta txakur batena. Hiru eskeleto horiek gauz ateratzen dira, paseatze-
ra eta jendea ikaratzera. Ez dira, ordea, pertsonaia beldurgarriak.



Patti eta inurriak 8 urtetik aurrera

Pattik egun txarra izan du. Eskolan nota txarrak atera ditu, eta irakasleak errieta egin dio. Etxera itzultzean, gurasoak ere haserretu zaizkio. Nahigabetuta, logelan bilatu du aterpea, eta Internetera konektatu da, baina, ustekabean, aukeratik erori eta konortea galdu du. Handik gutxira, neskabila ñimiño bilakatuta itzartuko da gurasoen lorategiaren erdian...



Asteburu bat eskiatzen 10 urtetik aurrera

Lagun-taldea berriz elkartzeko irrikitan dago, baina Basakabi eta uda urrun geratzen dira oraindik. Horregatik, asteburu bat eskiatzen pasatzea erabaki dute. Zuri eta Maddi New Jersey badaude ere, beste guztiek lo-zakuak prestatu dituzte eta aterpetxe batean hartu dute ostatu. Batzuek primeran eskiatzen dute; beste batzuek, berriz, ideiarik ez. Hala ere, nor bere erara ongi pasatzen saiatuko da. Azkenik, ustekabe batek harrapatuko ditu den-denak, eta eskiaz gain, bestelako abenturak biziko dituzte.



ipuin

Mikel eta bere urrezko bola

Bazen behin, 1967. urtean, herri txiki batean Mikel Johnson izeneko mutil bat. Mikelek zerua bezalako begi urdinak zituen eta zuhaitzaren enbor koloreko ile marroia. Oso mutil alai eta dibertigarria zen eta lagunekin oso harreman onak zituen. Mikel ezkontuta zegoen eta bere emaztea Eider deitzen zen. Mikelek bezala begi urdinak zituen baina ilea beltza, ihatza bezalako.

Mikel, larumbatero bere lagunekin herriko tabernara trago batzuk hartzera joaten zen. Han, mota askotako aldizkariak zeuden eta banaka-banaka irakurtzea gustatzen zitzaion. Aldizkari batean, dragoi bati buruz hitz egiten zuten. Thylta uhartean dragoi bat zegoela jartzen zuen eta urrezko bola bat zuela jostailu bezala.

Mikelek bere emaztearekin joatea nahi zuen baina Eiderrek ez zuela merezi esan zion eta elharrizketa hori izan eta

gero, uhartera lagunekin joatea erabaki zuen. Hurrengo asteburuan portura jaitsi ziren itsasontzi bat alokatzeko, Thylta uhartera joateko. Lagun batek mapa hartu zuen eta hiru ordu bidaiatu ondoren uhartera iritsi ziren.


Mendian zehar pare bat ordu ibili eta gero, dragoi aurkitu zuten bere urrezko bolarekin jolasten. Beldurtu egin ziren 21 metro inguru zituelako, erraldoia benetan!! Azkar-azkar uhartetik ihes egin nahi izan zuten baina ilundu zuenez ezin izan zuten uhartetik atera. Gaua zuhaitz artean pasatu zuten iharagarritzko beldurrarekin.

Goizean dragoiak bola saltatu zuela konturatu ziren eta ixil-ixilik bola hartu eta etxera bueltatzea erabaki zuten. Dragoi garrasika haxi zen eta Mikelen lagunetako bat zoroaren pare kanoikadaka haxi zen. Dragoiak urrezko bola harrapatzen saiatzen zela ikusi zuten baina jolastea nahi zuela besterik konturatu ziren. Urrezko bola beste harrizko bategatik aldatu zioten eta etxera bueltatu ziren urrezkoarekin, muso batetan erakusteko asmoarekin.

Egun hartatik aurrera, hiru astetik behin, Thylta uhartera joaten dira dragoiarekin jolastera.



Julen Aranzabal



zu margolari